

EDITH STEIN:
XX. MENDEKO EMAKUME IMITAGARRIA:
FILOSOFIA BIDEETAN EGIAREN BILA IBILI,
ETA MAITASUNEAN AURKITU ZUENA.

Nor dugu urriaren 11n santuen artean aldaretara jasotzen duten emakume hau? XX. mendeko emakumea, mende honetako mugimenduak: filosofikoak, espiritualak nahiz feministak barru-barrutik bizi izan zituena... Gaurko emakumeentzat eredu bikain bat.

Nor izan zen, baina? Emakumea eta feminista, judegua eta fede-galdua. Prusiako alemana, filosofoa..., filosofia bideetatik egiaren bila jardun zuena..., arrazionalismoan, fenomenologian gizakiaren esangura eta balioaren bila ibilia...; 30 urte zituela, S. Teresa Avilakoaren bizitza irakurri, eta Kristorengana bihurtuz, bakea eta poza aurkitu zituena. Emakume eta filosofo bezala, gizaki berri bezala, Kristorengan aurkitu zuen oinarri sendoa eta bete-betekoa.

Bere lanik ederrenetarikoa emakumearen nortasuna azaldu, eta ideia sendoetan oinarriturik irakastea izan zen. Emakumearen arazoa mende honen hasieran argitu zuen, benetako feminismoa bultzatuz; gizonezkoen munduan, unibertsitateko irakasleen artean gogor jokatu beharra izan zuen bere irakaskuntzako lanbidean aurrera egiteko; emakumeen eskubideen



Edith Stein 1931n, 40 urterekin.

aldeko borrokan lehenetarikoa izan zen, European zehar hitzaldiak ematen lan ugari eginik.

Konpromisoei aurre egiten jakin zuen emakumea dugu; gazte zelarik, ikasketak utzi, eta boluntario gisa lehen mundu-gerran herizain zereginetan aritu zen Gurutze Gorrian, besteen atsekabeak eta minak arintzen; eta bigarren mundu-gerran bera eramango dute heriotzara, maitasunaren eta egiaren ordainetan Auschwitz izanik holokausto-lekua.

Bere ezaugarriak behinena, etengabeki egiaren bila ari den gaztea izatea da. Filosofia ezberdinak hausnartu, erlijio ezberdi-

nak bizi, kultura ezberdinen muinaz jabetu, mende honetako mundu-gerra biak jasan, eta gizakiaren barruko egarriak eta amorrak ezagutu zituen. Baina, azken batean, Kristorengan, Karmeldarren espiritualitatearen bizimoduan aurkitu zituen barruko sendotasuna eta osotasuna...

Edith Stein pentsamendu modernoaren eta kristau-espirtualitatearen artean zubia ezartzen ageri zaigu. Hala ere nazismoa

zubi eta gizatasun guztiak hausten ahaleginduko zen, eta Edith bera ere amorruren sare gaizto horretan eroriko zen.

Emakume honek, nazismoaren jokabideak eta ondorioak argi ikusiz, gutun bat idatzi zion Aita Santuari, eta heriotza baino hiru urte lehenago (1939) bere bizia eskaini zion Jainkoari, judueguen alde, Alemaniaren alde nahiz Eliza eta Karmelgo Ordenaren alde.

Bai, Edith Stein, Maximiliano Kolberen antzera, Tito Brandsmaren antzera, Dietrich Bonhöffer-en antzera, egiaren lekuko, maitasunaren lekuko dugu. Eta egia eta maitasuna, gezurraren, amorruren, sozio-politika gaixo eta zoro baten menpe erori arren, azken batean garaile ateratzen dira.

Auschwitz, Mathausen, eta abar bezalako holokausto-sinbolo gaizto guztien aurrean, emakume hau ageri zaigu: hain zuzen ere, Karmelgo ixiltasunean bizi izana, gizakiaren izaera hausnartzen eta azaltzen saiatu zena, Jainko handiaren presentzia maitasunean bizi izana, baina, era berean, mundu honekin eta beraren arazoekin estuki lotua. Holandako apezpikuek nazismoaren aurka eta egiaren alde hitz egin ondoren, hil egin behar zuten nahitaez etsaiek ixilean bizi zen emakume hau. Edith mundu honi lotuta, bere elizarekin maitasunean lotuta, besteen egintzen ondorioz bere bizia emanez, aro modernoetako bene-benetako martiria, hau da, egiaren lekukoa dugu.

Hona hemen, bada, santa berria: Edith Stein: feministen eredu, egiaren bila ari diren filosofoen eredu, gizkia hezten direnen eredu, ... munduko gurutzea eramán ezinik dihardutenen eredu, Jainkoaren bila dabiltzanen eredu..., maitasunaren egarri direnen testigu.